

txintxarri

TXINTXARRI-ko emakumeok, planto



TXINTXARRI-ko emakumeok bat egin dugu Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8rako deituriko grebarekin. Aldizkaria egiten dugun langile gehienak emakumeak garenez, azal zuri honen bidez bistarazi nahi dugu itzalpean egiten dugun lana, eta kazetaritza bititza pribatuarekin uztartzeko ditugun zailtasunak. Bizi dugun prekaritatearen aurrean protesta egiteko modu bat da. Gaur www.txintxarri.eus atarian ez dugu berririk publikatuko; bihartik aurrera greba honen inguruan eta Lasarte-Oriari buruz informatzen jarraituko dugu betiko moduan; emakumeok gizartean dugun pisua gure orrietan bistaratzen.

**Martxoaren 8ko grebarekin
bat eginda, gaur,
www.txintxarri.eus
webgunea
ez da eguneratuko**

URTINEA

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA



"Herria hartzera" deitu dituzte emakumeak

M8 Asanbladak deitutako greba feministak Lasarte-Oriako kaleak betetzea espero dute. Bost ardatzen inguruan egituratutako mobilizazioak, zaintza lanak nabarmenduko ditu. Haien berrantolaketa soziala eskatuko dute, emakumen esku gera ez daitezten

Maitane Aldanondo

Emakumeak grebara deituta daude gaur. 24 orduz, mota guztietako lanak uztera, planto egitera. Gelditzera, dena aldatzeko. Lasarte-Oriako M8 Asanbladako kide dira Uxue Loinaz eta Inge Mendioroz. Gaurko borrokak eta helburuak azaldu dituzte egun honen bezperatan.

Lasarte Moriatic sortu zuten iaz M8ko Asanblada, eta azken hilabeteotan, egindakoari jarraipena eman diote Emakumeen Zentro Zibikoan elkartuta. Herriko elkarte eta eragile ugari barnebiltzen ditu taldeak, emakume anitzek osatzen dute: "Pentsiodunak, guraso elkarteak, Kukuka, Oriarte institutua, Ttakun, Kuadrillategiko batzuk, Atsokabar...", zerrendatu ditu Mendiorozek.

Modu deszentralizatuan antolatuta dute greba. M8 Asanbladak koordinatu du, baina beste haren barruan beste talde batzuk sortu dira ere. Mendiorozen ustez, iazkoa aldaketa eta ilusio handia izan zen emakume askorentzat, bestela mobilizatzen ez direnak ere batu zitzaizkien. Bereziki, gaztetxoek jarrera nabarmendu du. "Asanblada sortu dute institutuan, eta neska guztiak zeuden bilerak egin". Ez dira, ordea, gogotsu dauden bakarrak "Giroa bero ikusten dugu".

Bost ardatz ditu grebak: zaintza, enplegua, kontsumoa, ikasleak eta pentsiodunak. Horien baitan dihardutenengana joan dira, denek presentzia izan dezaten. Zaintza erdigunean jarri dute, haien berrantolaketa eskatzeko. Ikusgarri egin nahi dute, batetik, soldatapean lan horiek egiten dituztenen egoera. "Atsokabarren-eta dabilzanek zer prekarietatetan lanean ari diren, inolako baliabidegabe, langile gutxi..."; eta bestetik, "doan, emakume askok eta askok egiten dituzten etxeko lanak, haurren zaintza,



M8 Asanbladak hainbat jarduera egingo ditu gaur Lasarte-Orian. TXINTXARRI

ASANBLADAKO KIDEEK "GIROA BERO" IKUSTEN DUTE ETA EMAKUMEAK GOGOTSU DAUDELA

helduen zaintza...". Baita sarri emakume arrazializatuak direla ere, "ez da kasualitatea horiek ere are eta zapalduago egotea genero, klase eta arraza baitan".

Kalea "okupatu"

Egoera hori izanda, badakite askok zailtasunak izango dituztela lana uzteko, bereziki, haurren eta adinekoen zaintzari dagokionean. "Horrek erakusten du gizonek lan horiek hartzeko dagoen gabezia. Arazo, gabezia edo arduragabekeria", zehaztu du Loinazek. Hain zuzen ere, hori izan daiteke gizonen ekarpena gaur. Norberaren aferetarako baimena eskatu, eta zaintza beraien gain hartu edo modu kolektiboan gauzatzeko antolatu. "Zaintza egiten parte har dezakete. Greba gurea da eta beraiek bete behar dituzte gogotz utzitako hutsuneak. Orduan

ikusiko dugu zer falta dauden", argitu du Mendiorozek.

Kalean ikusaraziko dute hutsune hori. Oihartzuna izan eta greban daudela ikustarazteko, karabana batek zeharkatuko du herria, 11:30ean hasita. Ondoren, kalejira feminista egingo dute 12:30ean. Ardatz bakoitzeko aldarrikapenak ezagutarazteko geldiunea egingo dute: Atsokabarren, Lanbide eta Eroski parean, Oriarte-Landaberri eraikinean, eta Okendon. Kaleetan barrena ibili ondoren, Kale Nagusia "okupatuko" dute, modu simbolikoan "herria hartzeko".

Kontsumo greba kontuan izanda, bazkari autogestionatua egingo dute Okendon. Hau da, norberak berea ekarrita. Bazkalostean Oriarteko ikasleek zein irakasleek prestatu duten idatzi bat irakurriko dute. Kukuka taldeak, berriz, emakumeek bizi dituzten zapalketen inguruko *performance* egingo dute. Eguna modu zaratsuan amaituko dute balkoietatik kazerolada eginda.

Udalak elkarretaratzea deitu du 12:00etan. Egitaraua moldatu dute "ez zapaltzeko", baina ez dute babestuko. "Ez dugu harremanik izan".



TXINTXARRI

Erabaki dute 2020ko kartela

Maialen Parisek irabazi du Martxoaren 8ko kartel lehiaketa, eta 120 euroko saria eskuratzeaz gainera, bere kartela erabiliko dute hurrengo urteko ekitaldia iragartzeko. Bigarren saria Naia Callec irabazi du, eta hirugarrena, Andrea Bravok.



TXINTXARRI

Zuhaitz moreak ikastoletan

Sasoeta-Zumaburun eta Landaberri ikastoletan zuhaitzak apaindu dituzte gaztetxoek, Martxoaren 8ari ongietorria emateko. Artilez jantzi dituzte zuhaitzak, irakasleen laguntzarekin. Garaikoetxea eraikinean eta Oriarte institutuan ere egin dituzte gaurko egunari begirako ekitaldiak.



TXINTXARRI

Gaurko grebarako dei erraldoia

Giroa berotzen hasteko, argazki erraldoia egin zuten Okendo plazan pasaden larunbat eguerdian. Nahiz eta inauterietan bete-betean bat egin, tarte batez festa alde batera utzi, eta Lasarte-Oriako M8 Asanbladak deitutako aldarrikapenari babesa adierazi zioten hainbat herritarrek.

Ardo dastatzeak antolatu ditu Aterpeak martxoan

Hurrengo astean hasiko dira, asteazkenean, eta martxoa bukaeran izango da azkena. Bost tabernatan beste horrenbeste upategik egingo dituzte erakustaldiak. Enologo baten azalpenak ere jasoko dituzte bertaratutakoek. Zazpi euro balio ditu izen-emateak

Txintxarri

Poteoan gehien kontsumitzen den edari alkoholduna da, eta horregatik agian, jakin-min gehien pizten duena. Hain justu, gehiago jakiteko interes horrek bultzatuta antolatu du ardo dastatzea aurten ere Aterpea merkatarien eta ostalarien elkarteak. Martxoa amaitu bitartean, hainbat tabernatan upategiek beraiek ekarritako ardoa dastatu ahal izango da, enologo baten laguntzarekin. Zazpi euroren truke parte hartu daiteke dastatze bakoitzean, eta plazak mugatuak direnez, alde aurretik izena ematea gomendatu dute antolatzaileek. Tabernan bertan egin daiteke hori.

19:00etatik aurrera

Iluntzeetan izango dira dastatzeak, 19:00etatik 21:00etara. Bodega bakoitzak aukeratuko du zer ardo eraman, baina normalean ardo onduak jartzen dituzte dastatzeko.

Aurreko esperientziak arrakastatsuak izan dira. "Jendeari asko gustatzen zaio jakitea, batez ere prozesuaren inguruan. Zenbat denbora egoten den upeletan, ardoa egiteko modua...", azaldu du Yoli Palomaresek, Buenetxea tabernakoak.



Eguzki tabernan egin dute Aterpeko ekitaldiaren aurkezpena. TXINTXARRI

Tabernen zerrenda eta egutegia

Martxoaren 13a

- Buenetxea taberna. Olarra upategia.

Martxoaren 20a

- Isla Plaza ardoteka. Ignacio Marin upategia.

Martxoaren 21a

- Txartel kafetegia. Felix Lorenzo Cachazo upategia.

Martxoaren 26a

- Eguzki taberna. Ramon Bilbao-Goñi upategia.

Martxoaren 28a

- Primeran taberna. Ondarre upategia.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Hutsa betetzeko

Lagunartean askotan aipatu dugu euskarak baduela paradoxa linguistiko bat *hutsa* hitzarekin. Kafe huts bat eskatzen dugunean, esaterako, kafea oso-osorik eskatzen ari gara. *Zorion hutsa* dugula esaten dugunean, berriz, zorion betean gaudela. Alegia, hutsak betea esan dezake aldi berean, euskaraz.

Gaur ere, TXINTXARRI-ko orriotan hutsuneak ageri dira. Akaso, zuon etxeetako sukaldeetan ere nabarituکو zenuten hutsunerik, edo mediku kontsultara joaterakoan, klasean... Agian hutsik aurkitu duzue zuen postontzia, eta irratian ohiko goizetako magazina beharrean etenik gabeko musika saioa jarri dute. Beharbada, jangelara doazen haurrek ez dute ezer izango platerean eta zaharren egoitzetako pasiloak senideez bete dira, langilerik apenas ez zegoelako.

Pentsa hala dela. Sumatzen al duzu gizartearen erdia ez egoteak sor dezakeen hutsunea? Hausnartu al duzu nork beteko lituzkeen horiek andrerik ezean? Non gauden? Han eta hemen, nonahi. Gaur, ordea, kaleak beteko ditugu, hutsa eta hutsunea, biak ikustarazteko. Ez edukirik gabe, ordea: gerra betean gaude, eta aldarriz beteko ditugu bazterrak. Haserre gaude, amorratuta eta antolatuta. Eta bai, aurre egingo diogu, ahizpatasun hutsez.



Bost milioi utzi ditu Primitivak

Igandeko Primitivako zozketak 5.439.000 euro utzi ditu Lasarte-Orian. Kale Nagusiko Iza-Guerri loteria dendak saldu zion zenbakia asmatzaile bakarrari. 32 urte ditu negoziokoak, eta bertakoek badakite zer den sari garrantzitsuak banatzea: iazko Gabonetako Loterian 400.000 euro eman zituzten.

ASTE...
GAZTEA!!!!
Apirilaren 15etik 17ra

Orion 3 egun!!!!

Noiz: Apirilaren 15etik 17ra Norentzat: 9-12 urteko haurrak

Prezioa: Ttakuneko bazkideak 48€ | Bazkide ez direnak: 51€

Izen-ematea: Apirilaren 5a arte (hau barne)

Informazio gehiago: Ttakuneko bulegoan | 943 37 14 48 | aisia@ttakun.eus

Bilera gurasoekin: Apirilaren 10ean, 17:30ean Anbulategiko 2. solairuan



PLAZA MUGATUAK!
ANIMA ZAITEZ!





Elkarretaratzea eta prentsa agerraldia egin zuen Sarek, Balerdi sendia omendu eta hitzaldien berri emateko. TXINTXARRI

Herriko presoeren egoera azaleratzeko hitzaldiak

Balerdi sendiari omenaldia egin, eta Lasarte-Oriako Sare Herritarrak hainbat hitzaldi iragarri ditu, presoeren eskubide urraketak salatzen. Aditu eta senitartekoen bizipenak entzun ahal izango dira martxoaren 12an eta 26an, 19:00etan, Mercero aretoan

Txintxarri

Urteurrenak efemeride soilak baino gehiago dira batzuetan. Otsailaren 28 batean hil ziren auto istripuz Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi, haien semea eta anaia Almeriako kartzelara bisitatzen zihoazela. Ostegun goizean lore sorta eskaini zieten senitartekoei eta beste lagunek, Askatasunaren parkean. Arratsaldean, berriz, Sare Herritarrak deituta, elkarretaratzea egin zuten. Bide batez, hainbat ekitaldi iragarri zituzten; hitzaldiak antolatu dituzte hurrengo asteetan, herriko euskal presoek ukatzen zaizkien eskubideak salatzen.

Lasarte-Orian eta Hernanin egingo dituzte ekitaldiak. Martxoaren 12an, asteartearrekin, hitzaldia eskainiko dute Anais Funosas Bake Bidean elkarteak kideak eta Maritxu Paulus Basurko abokatuak. Mercero gunean izango da, 19:00etan. Frantzia dauden euskal presoeren nondik norakoak aztertuko

dituzte bi adituek, eta, zehatz-mehatz, Lasarte-Oriako presoek buruz azalpenak emango dituzte. Hiru dira: Javier Gallaga, Aitzol Iriondo eta Ibon Fernandez. Funosas eta Paulus Iparraldean bizi dira, eta Frantzia ematen ari diren azken pausoen eta dituzten oztopoen berri emango dute. "Etorkizunari begira marrazten den egoera irudikatuko dute. Herritarrak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera", azaldu du Joxe Mari Agirretxe Sareko kideak.

Hil bukaeran, martxoaren 26an, asteartean, *Azken arnasa arte* dokumentala emango dute, Merceron, 19:00etan. Gallaga, Iriondo eta Fernandez senitartekoak izango dira ekitaldian, eta haien bizipenak kontatuko dituzte. "Egoera juridikoki eta politikoki aztertuko dugu martxoaren 12an. Hilaren 26ko ekitaldian, berriz, modu pertsonalean egingo dute. Haien gertuko egoera partekatuko dute".

Azkenik, hilaren 29an, hilabeteko azken ostiralarekin bat, ohiko kontzentrazioa egingo dute, baina modu berezian; udaletxe zaharraren parean egingo dute, 20:00etan. "Aitzoli, Javierri eta Iboni ukatzen zaizkien eskubideak aldarrikatuko ditugu".

Urtemuga

Ekitaldian gogoan izan zuten Balerdi sendia. "Mingarria da oraindik oroitzeko ariketa hauek egitea". Orain 15 urte hil ziren Juankar Balerdiaren senideak. Halere, Itziar Arteaga Sareko kidearen esanetan, "aurrera begiratzeko" baliogarria da iraganari so egitea. Izan ere, espetxe politikan gauza asko aldatzeko daude. "Indarrean jarraitzen du bakartu eta urruntzen duen politika horrek. Gradu aldaketak ukatu egiten zaizkie. Gaixo larri daudenek ez daukate osasuna zaintzeko tratamendu egokirik hartzerik".



Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Martxoaren 21ean, Errigorako sorta ekologiko bat zozkatuko dugu Ttakuneko bazkideen artean

Eman izena martxoaren 20a baino lehen (hau barne) harpidetza@ttakun.eus, 646 82 44 66an edo bulegoan.



Bazkideetza informazioa



@TtakunKE

... eta Txintxarrik ere bai!

www.txintxarri.eus

Irakurleen artean ere Errigorako sorta konbetzional bat zozkatuko dugu.

Eman izena martxoaren 20a baino lehen www.txintxarri.eus/zozetak



Hipodromoko errepidea hobetzeko beharra

EH Bilduk salatu du Landaberri ikastola herriarekin lotzen duen errepidearen "egoera kaskarra". Mozio bat aurkeztuko du datorren udalbatzarrean, asteartean, Donostiako eta Lasarte-Oriako udalei eskatzeko beharrezkoak diren lanak egin ditzaten

Txintxarri

Hipodromoko zubitik aurrera Landaberri ikastolara doan errepidea ez dago Lasarte-Oriako lurretan, baina herritarrentzako garrantzi handia du. Ez bakarrik pertsona askok aisialdirako erabiltzen dutelako, bizikletaz edo oinez paseoak emateko. Herria eta Lehen Hezkuntzako Landaberri ikastola lotzen ditu; LH3-LH6 arteko haurren zentroa da. Haatik, errepidea ez dago egoera onean. Estua da, toki askotan bi autok ezin dute elkar gurutzatu, eta zuloak ditu. Arazoari heldu nahi dio EH Bilduk, eta konponbidea proposatzeko prentsa agerraldia egin du. Datorren astearteko udalbatzarrean aurkeztuko duen mozioa azaldu du. Ondokoa eskatuko dute: Donostiako Udalari, Hipodromoko atzeko errepidea konpontzeko; udal gobernuari, Landaberriko ikastolako aldapan beharrezko lanak egiteko; eta Hezkuntzako Delegaritzari, jangela zerbitzua jartzeko.

Korapilotsua da arazoa, hainbat erakunde nahasten dituelako. Alde batetik, Donostiako lurretan dago Hipodromotik ikastolarako errepidea, eta, hortaz, hari dagozkio mantentze lanak. Bestetik, bidegurutzetik ikastolarako aldapa Lasarte-



Leire Elizegi eta Pablo Barrio mozioaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Oriako eskumenen barruan dago. Eta, azkenik, zentroaz Hezkuntza saila arduratzen da.

31 joan-etorri egunean

Pablo Barrio eta Leire Elizegi bozeramaileek emandakoak dira datuak: umeez bi joan-etorri egin behar dituzte egunean; bete-beteta dauden autobusek, guztira 31. "Arriskuak begibistakoak dira". Baina arazoa ez da bukatzen ikastolako bidegurutzean. "Sarbidetik gorako aldaparen egoera ez da hobe. Autobusek eta autoek

arazoak izaten dituzte askotan sarrera-irteeretan. Gainera, aldaparen hainbat zatitan lur jausiak sortzeko moduko pitzadurak ireki dira galtzadan", esan du Elizegik.

Bestalde, joan-etorriak areagotu egiten dira ikastolaren beraren gabeziengatik. Izan ere, ez du jangela zerbitzua eskaintzen, eta bazkalorduan gaztetxoak herrira itzultzera behartzen ditu. "Arriskuez aparte, joan-etorri ugariak umeengan nekea eragiten dute, eta denbora galtze handia da".

Sanpedroetan proposamenak jasotzeko epea ireki du udalak

Herritarrek festetako omendua aukeratu ahal izango dute, ekintzak proposatzeaz gainera, hilaren 22ra arte

Txintxarri

Lasarteoriatarrek aukeratu ahal izango dute herriaren alde lan egin duten pertsona edo kolektiboa. Martxoaren 22ra arte dago epea aurtengo festetako omendua aukeratzeko. Pertsona bakoitzak proposamen bat egin ahalko du, eta arrazoitu egin beharko du. Horretarako, udalak etxez-etxe banatuko ditu eskuorri batzuk, herritarrek horren bidez parte hartu dezaten. Udal eraikinetako postontzietan utzi beharko dute proposamena. Udaleko webgunean ere parte hartu daiteke.

Bestalde, ekintza berriren bat antolatu edo musika talde bat proposatu nahi duenak ere



Sanpedroetako txupina. TXINTXARRI

izango du horretarako aukera. Idatziz jasoko dituzte proposamenak, udal eraikinetako postontzietan eta www.lasarteoria.org webgunean, hilaren 22ra arte.



TXINTXARRI

Eneko Ortiz da sariduna

Lasarte-Oriako Udalak gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean zozketa egin du, eta Eneko Ortiz Zinkunegiri, Mugica autoeskolako ikasleari, egokitu zaio saria. 301 euro jaso ditu.

ASTE...
GAZTEA!!!!
Apirilaren 15etik 17ra

Orion 3 egun!!!!

Noiz: Apirilaren 15etik 17ra Norentzat: 9-12 urteko haurrak

Prezioa: Ttakuneko bazkideak 48€ | Bazkide ez direnak: 51€

Izen-ematea: Apirilaren 5a arte (hau barne)

Informazio gehiago: Ttakuneko bulegoan | 943 37 14 48 | aisia@ttakun.eus

Bilera gurasoekin: Apirilaren 10ean, 17:30ean Anbulategiko 2. solairuan



PLAZA MUGATUAK!
ANIMA ZAITEZ!

GAZTE
KLUBA

Ttakun
Kultur Ekartea

Argia, kamerak... Grabatzen!

Herritarren imajinazioa kalean

Fikziozko pertsonaiak bete da Lasarte-Oria. Casting koloretsua eta jendetsua izan da. Pelikula, telesail, komiki eta ipuinak izan dira lasarteoriarren iturri. Imajinazioa eta grazia jarri dizkiete mozorroei, eta herria alaitu dute lau egunez. Ostegunean, Udal Musika Eskolako kideek eman zioten hasiera Inauteriei. Ikastetxeek hartu zuten lekukoa ostiral arratsaldean, eta gazteek haien jaialditxoak izan zuten. Larunbatean sei konpartsa animatu ziren Inauterietan parte hartzera. Ikus-entzulez beteta zegoen plazan emanaldia eskaini zuten aurrena. Intzak Parranda taldeak eraman zuten konpartsa onenaren saria. Banakakoa, berriz, Oria ibaiko lamiek. Horrez gain, Sorgin Jaiek proposatu zuten fikzioa eta erraustegiaren aurkako protesta uztartzea; ekintza bat egin zuten Okendo plazan. Bazkalostean, konpartsek desfilea egin zuten herriko kaleetatik. Gaueko ordu txikietara arte luzatu zen festa. Astelehenean, etxeko txikien txanda izan zen. Mozorro lehiaketa eta Koko eta Mokoren abenturekin ederki gozatu zuten.



Konpartsen bigarren saria eskuratu zuten Emakumeen Zentro Zibikoko pirata eta superheroiek. TXINTXARRI



Eguraldia lagun, ehunka herritar bildu ziren Okendo plazan. Eguerdian, konpartsen aurkezpena



Shrek, Fiona eta Katu botaduna Lasarte-Orian izan ziren Sasoeta Sasoainen eskutik. Hirugarren saria lortu zuten. TXINTXARRI



Intzak Parrandan taldeko iratxo eta maitagarriek Lasarte-Oriako herritarrak sorgindu zituzten



eta banakako mozorro lehiaketa ikusi zuten. TXINTXARRI



Jalgune elkarteko kideak Disneyko filmeetako pertsonaiez mozorrotu ziren. TXINTXARRI



Zabaletako bikingoek ederki egin zuten oihu herritarrei jaietan parte hartzeko deia egiteko. TXINTXARRI



haien jantzi, dantza eta karrozarekin. Aurten ere, konpartsen lehen saria lortu dute. TXINTXARRI



Erketz EDTko galtzagorri bihurriak ere izan ziren herriko kaleetan dantzan. TXINTXARRI



Oria ibaiko lamia bereziek banakako mozerro lehiaketa irabazi zuten. TXINTXARRI



Zabaletako bikingoen ontzia zatitu behar izan zuten Okendo plazan sartzeko. TXINTXARRI



Adin guztietako herritarrek animatu ziren mozerroa jantzi eta kalera ateratzera. TXINTXARRI



Musikaz eta kolorez bete zituen arratsaldeko desfileak herriko kaleak. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolak ere ez zuen hutsik egin, eta kontzertu paregabea eskaini zuen. TXINTXARRI



Ostiral arratsaldean,




Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haur eta gazteak euskal mitologian oinarritu ziren haien mozorroak egiteko. Guraso eta senideen aurrean, ederki egin zuten dantza TXINTXARRI



Landaberri ikastolako txikiek Lantzeko Inauterien ikuskizuna eskaini zuten. Ninja dordokak, Minionsak, Harry Potter eta bere lagunak, zonbiak, mamu harrapariak... Zubietako eraikinean mozorro ugari ikusi ziren. TXINTXARRI



gaztetxoek ederki gozatu zuten mozorro lehiaketari, musikari eta askariari esker. Astelehenean etxeko txikien txanda izan zen. Argazkia atera zuten oholztzan, eta pailazo nola izan ikasi zuten Koko eta Mokorekin. TXINTXARRI



Aristegi entrenatzailea eta Eizagirre judoka, txapelketaren ostean, Alcalá de Henareseko kiroldegian. LOKE JUDO

Eizagirre, Espainiako judo azpitxapeldun

Txapelketa ia perfektua egin du LOKEko judokak; finalera bideko hiru borroka erraztasunez irabazi ditu, minutu bat baino gutxiagoko denboran. Finala lehiatua izan arren, urrezko dominak ihes egin dio. Espainiako selekzioarekin arituko da orain

Adrian Garcia

Sasoi onean, eta txapelketa onak egiten aritu da azken boladan Eneko Eizagirre judoka. Baina asteburu honetan bere ibilbideko emaitzarik garrantzitsuenetakoa lortu du: Espainiako junior txapelketan zilarrezko domina eskuratu du, 100 kilo azpiko kategorian; lau borrokatatik bakarra galdu du, finala. Gainerako hirurak nagusitasunez irabazi ditu; ipponez minutu bat baino gutxiagoan. Gorka Aristegi LOKEko judo entrenatzailea pozik agertu da, baina emaitzak ez du ezustean harrapatu: "Nik banekien aukerak bazituela. Beste txapelketetatik aurkariak ezagutzen genituen. Bagenekien zozketaren arabera aukerak izango genituela".

Koadroko goiko aldetik egokitu zaio Eizagirreri. Madrilgo Santiago Uleciaren aurka hasi du txapelketa. Hamalau segundo iraun ditu LOKEko judokaren aurka. Hurrengo borrokan, finalerdiak jokatzeko aukera irabazteko, Galiziako judoka baten aurka neurtu ditu indarrak. Gehixeago kostatu zaio, baina, edozein modutan ere, mintutu bat baino gutxiagoan menderatu du aurkaria.

Finalerdietan iritsi da lehenengo erronka handia. Galiziako Alejandro Basteroren aurka lehiatu du, iazko azpitxapelduna. "Borroka zaila

izan da, baina erraz irabazi du", esan du Aristegik. 48 segundotan lortu du finalerako txartela.

Finala izan du borroka lehiatua. Alejandro Calvo Madrilgo judokak irabazi du txapelketa. "Ez du hain ondo egin. Denbora asko egon ziren geldirik, borroka trabatua izan zen". Neketsuagoa izan zuen Calvok finalerako bidea, ez baitzuten horrenbesteko nagusitasunez irabazi borroka guztiak.

Espainiako selekzioarekin

Gorabeheratsu hasitako denboraldia borobiltzea lortu du judoka gazteak. "Oso azkarra da, ongi irakurtzen ditu borroka, eta badaki zer egin behar duen". Aurretik Gipuzkoako eta Tortosako Espainiako kopako txapeliduna izan da, eta Salamancako kopako bigarrena. Ahaztu ditu dagoeneko denboraldi hasierako minak, eta erritmoa hartuta dago. Gainera, bigarren postu horrekin ate gehiago ireki zaizkio, Espainiako selekzioak hautatu baitu Europako kopak jokatzeko.

"OSO AZKARRA DA, BETI DAKI ZER EGIN BEHAR DUEN", ESAN DU ARISTEGI ENTRENATZAILEAK

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Eibar SAD - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Unbe, Eibarren.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Gure Txokoa Larunbata. 16:00. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Elgoibar CD Larunbata. 17:45. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Intxurre KKE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Elorri, Alegin.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Touring KE - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Fanderia, Errenterian.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B- Urnieta KE B Larunbata. 10:00. Michelin Kirol gunean.
Ostadar SKT B- Idiazabal KE B Igandea. 11:15. Michelin Kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra - Ostadar SKT B Igandea. 09:45. Michelin Kirol gunean.
Ostadar SKT A - Beasain SD Larunbata. 11:30. Michelin Kirol gunean.

INFANTIL F-8, KOPA
Ostadar SKT - Amaikak Bat KE Larunbata. 13:00. Michelin Kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Bar Buenetxea - Academia London Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Insausti taberna - Trumoi taberna Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Izengabe - Asador Irigoien Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Patricio Cocktail Bar - Viña del Mar Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
3. NAZIONALA
Afantxo FK - Antiguoko KE Larunbata. 18:00. Pasai Donibane kir., Pasaián.
GIPUZKOAKO SENIORRA
Garoa Taberna - Ordizia KE Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegia.
Bilkoín Legorreta - Aldaz Klinika Ostirala. 21:30. Harripila pil., Legorretan.
GIPUZKOAKO II. MAILA
ISU Leihoak - Laskorain Ke. Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegia.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Herrikide - Bar Lasarte Larunbata. 11:00. Eskolapioak, Tolosan.

GIPUZKOAKO KADETEAK
Balardi Harategiak - Lauburu Ibarra 2003 Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Txintxu Gozotegia ISB Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Mekalki Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Zubikoa kiroldegia, Oñatin.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Bera Bera Albistur Igandea. 11:15. M. Chourraut kiroldegian.
JUNIOR PARTE HARTZEA
Easo 02-03 Jesuitak - Ostadar SKT B Larunbata. 10:30. San Ignacio de Loyola ikastetxea, Donostian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Easo AECC Larunbata. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
KADETE PARTE HARTZEA
TAKE Orbinox - Ostadar SKT B Larunbata. 10:30. Usabal kir., Tolosan.
INFANTIL HAUNDI PARTE HARTZEA
Ostadar SKT - Internacional CD Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.

INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA
Ugaro Herri eskola - Ostadar SKT Igandea. 11:00. Harripila pil., Legorretan.
ERRUGBIA
SENIOR OHOREZKO B MAILA
Zarautz Beltzak RT - Getxo Artea RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
SENIOR EUSKAL LIGA
Funes RT - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Funesen.
18 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak RT - Univ. Bilbao Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak RT - Univ. Bilbao Larunbata. 11:30. Asti, Zarautzen.
12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak RTko gaztetoek federazioko jardunaldia dute. Larunbata. 10:30. Gasteizen.
TXIRRINDULARITZA
IRTEERA
Ostadar SKTko zikloturistek irteera egingo dute Artadi, Zumaira. Igandea. 09:00. Zumaburuko geltokia.

ATLETISMOA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
LOKEko Enara Gonzalez atletak 18 urtez azpiko pistako txapelketan parte hartuko du luzera jauzi proban. Igandea. 10:20. Palau Velodromo Lluís Puig, Valentzian.
IGERIKETA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta seniorrek Gipuzkoako Neguko X. Saria lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Azken Portu, Irunen.
PILOTA
UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA
Azkoitia 3- Intza 2 Ostirala. 19:00. Gurea, Azkoitian.
LASTERKETA
IV. LASTURKO MENDI MARTXA
Hainbat herritarrek IV. Lasturko Mendi martxan parte hartuko dute. Igandea. 07:30. Itziarren.
XXX. LILATOIA
Herriko hainbat emakumek parte hartuko dute. Igandea. 10:30. Donostian.



Maite Salazar herritarra, Beasaingo lasterketan. LASTERKETAK.EUS

Maite Salazar, bigarren Beasaingo herri lasterketan

Ezaguna du Lasarte-Oriako lasterkariak Bealak taldeak antolatutako proba; iaz ere bigarren egin zuen

Txintxarri

Beasaingo kale luzeak ondo ezagutzen ditu Maite Salazar korrikalariak. Kaleak bakarrik ez, herri lasterketako podiuma ere ezaguna zaio, behin baino gehiagotan igo da eta. Azkena, igande honetan; bigarren egin du Beasaingo herri lasterketan, 14 kilometroko proban. Lehia estua izan da, lehen hiru lasterkariak denbora gutxian sartu baitira. Ordubetekas behar izan du lasarteoriatarrek helmugaratzeko. Gemma Hernandez urretxuarrak aurre hartu dio, 45 bat segundoko aldeagatik. Hirugarren Elena Calvillo beasaindarra izan da, 1:01:00 denborarekin.

Aurten aldatu egin dute lasterketaren egitura. Iaz bi proba zeuden. Zazpi kilometroko motzak, herriari itzulia egiten zion. Hain justu, bigarren egin zuen proba horretan Salazarrek. 14 kilometrokoak bi bira ematen dizkio herriari. Halere, aurten lasterketa mistorako bakarrik utzi dute proba motza. Hortaz, bakarkako lasterkariak behartuta zeuden luzea egitera.

Peio Fadrique

Edonola ere, izan dira lasarteoriatar gehiago Beasainen. Esaterako, Peio Fadriquek lasterketa luzean parte hartu du; 1:10:00eko denboran eman ditu bi itzuliak.



INTZA FERNANDEZ

Hondarribiak, lehen bandera

Arraunak denboraldiari hasiera eman dio. Hondarribiako Arraun elkarteak Castro Urdiales Hiriko XXII. Banderan parte hartu du igandean. Intza Fernandez herritarra eta bere kideek lehen postuan amaitu dute lehia. Otsailaren 23an, etxean izan zuten lehen norgehiagoka: Hondarribiako traineru jaitziera. Horretan hirugarren postua eskuratu zuten, Orio eta Arraun Lagunak atzetik.

Zikloturistak errepidera

Ostadar SKTko zikloturista taldeak errepideko denboraldiari hasiera eman dio. Amezketara joan eta etorri, 60 bat kilometrotako ibilbidea egin dute taldeko hainbat kidek. Urrira arte, Ostadar SKTko txirindulariak igandero aterako dira errepidera. Hurrengo saioa, martxoaren 10ean da eta Zumaiaiko Artadi auzoraino egingo dute buelta.



OSTADAR ZIKLOTURISTA

UDALEKUAK LH3-LH6

LH: EGONALDIAK ATERPETXEAN

LEZANA DE MENA (Lezana)

• LH3-LH4 uztailaren 15tik 22ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

167€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

180€



+ Udako Txokoak

Uztailaren 2tik 12ra, Udako Txokoetan lagunak egin eta gero... abentura elkarrekin jarraitzeko aukera izango duzue Lezanan.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

255€

270€

10:00etatik 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

DONEMILIAGA (Errotazarra)

• LH5-LH6 uztailaren 2tik 13ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

231€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

250€



+ Udako Txokoak

Donemiliagako aterpetxean egon eta gero... uztailaren 15etik 30era abentura eta kirola Udako Txokoetan.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

315€

330€

10:00etatik 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

KTG kanpaldiak DBH1-DBH4

DBH: KTG KANPALDIK

DBH 1 eta 2
INGO AL DEU BA?
uztailaren 3tik 14ra

DBH 3 eta 4
MEZTIJAIA!
uztailaren 16tik 27ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

241€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

260€



Izen ematea: Ttakuneko bazkideentzat, iaz ibilitakoentzat eta Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gaztetxoentzat: martxoaren 20tik martxoaren 25era (barne). Gainerakoentzat: martxoaren 26tik maiatzaren 10era.

Maratoia prestatzeko, maratoi erdiak egin

Arantxa Zapata herritarrak lasterketa ugari egiten ditu urtearen buruan. Berezienetako bat asteburuan osatu du. Zehazki, Najeratik Santo Domingo de la Calzadara Done Jakue Bidearen tartean egindako maratoi erdia. Zaragozako maratoia du buruan

Maitane Aldanondo

Errioxako Najeratik Santo Domingo de la Calzadara doan Done Jakue Bidearen zatian antolatutako maratoi erdia jokatu zuten asteburuan. Bertan izan zen Arantxa Zapata herritarra, lehenengoz parte hartu zuen. Aurrez egin du Bidearen beste zati bat, baina "oso bestelakoa". Honen gogortasuna nabarmendu du, profil malkarra baitu. "Aldapa oso gogorak ditu, bereziki 12. kilometrotik aurrera. Ia oinez amaitu nuen, nekatuta nengoelako eta aurretik kilometroak nituelako", aitortu du Zapatak.

Horri gehitu behar zaizkio beroa eta zoruaren egoerari lotutako zailtasunak. "Mendi bideetako harri artean korrika egitea sufrituagoa da, erraza da orkatila bihurtzea". Ezagun zaizkio egoera horiek, mendiko lasterketetan ibili izan baita, eta erritmoa jaistea erabaki zuen. Hala, 2:17:53 marka egin zuen.

Deigarria egin zitzaion ikusleen artean zegoen euskaldun kopurua, "aupa neska" esanda animatu zutenak. "Lasterketa oso oso polita da. Esperientzia berezia izan da".

Zaragozako maratoia du buruan. Iaz izena eman zuen, baina lasterketa bertan behera utzi zuten, Ebro ibaiak gainezka egin zuelako. Gordetako dortsala



Lasterketa ugari egiten ditu Arantxa Zapak urtean zehar. JAVIER ZATARAIN

soinean jarriko du apirilaren 7an, eta hartarako prestatzen ari da. Astean bost egunetan entrenatzen du, behin distantzia luzeak egiten; maiz, asteburuetan maratoi erdi bat osatuta.

Bizikleta hartzeko gogoz

Ingurukotan aritu izan denez, "aldatzeko", gertu dauden beste batzuetara joatea gustatzen zaio. Edonola, egutegian dituen hurrengoak ordea, ondo ezagutzen ditu. Hilaren 17an UPV-EHUK antolatutako 10 kilometroko Udaberriko lasterketa egingo du,

eta hilabete amaieran, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Urtean maratoi bat edo bi egiten ditu, "polita" iruditzen zaidan baten bat. Aragoikoaz gain, bere asmoa Donostiakoa beste behin egitea da. Iaz Valentziakoan parte hartu zuen, eta ezin zuen hura egin.

Triatloian ere ibiltzen da Zapata, baina ez du prestatzeko nahikoa denbora. Korrika aritzaren zale bada ere, bizikleta hartzeko gogoa du. "Aldatu nahi dut hankek atsedean hartzeko". Ekainean Indurain zikloturismo proba egiteko asmoa du.

Narrea Furundarena Espainiako Txapelketan laugarren izan da

20 urtez azpiko Pistako Atletismo norgehiagokan 11,88 metroko marka lortu du; luzera jauzian azkena amaitu du

Txintxarri

Helburua lortu du Narrea Furundarenak. LOKEko atletak bere burua prestatu du 20 urtez azpiko Espainiako Pistako Txapelketan lehen postuetan egoteko. Eta hala izan da. Jauzi hirukoitzean, bere espezialitatean, laugarren postua eskuratu du.

Duela aste pare bat Oscar Goikoetxea entrenatzaileak TXINTXARRIri azaldu zion helburua lehen bosten artean amaitzea izango zela, eta horretarako, 12 metrotik gertuko jauzia egin beharko zuela. Ez

da luzera horretaraino heldu, baina gertu ibili da. 11,88 metro, egin ditu, bere marka onena, Euskadiko Txapelketan lortutako 11,87 metroetatik gertu.

Luzera jauzian, berriz, ez du asteburu ona izan Furundarenak. Lehen bi jauziak baliogabeak egin zituen, eta baleko bakarra 4,64 metrokoa izan zen, bere mailatik urruti.

Asteburu honetan Enara Gonzalez txanda izango da. 18 urtez azpiko Espainiako Pista Txapelketan ahaleginduko da onenen artean egoten.

Ohorezko B Mailan jarraituko du Zarautz Beltzak errugbi taldeak

Beste urtebetez mailari eutsiko dio taldeak Durango Gauraren aurka lortutako garaipenari esker

Txintxarri

Durango Gauraren aurka lortutako puntuei esker, Ohorezko B Mailan jarraituko du Zarautz Beltzak taldeak datorren denboraldian. Saillkapeneko azkenari aise irabazi zioten etxekoek; azken emaitzak argi uzten du: 74-10.

Lehen zatian Zarautz Beltzako jokalariek eskura jokatu zuten, jokaldi dotore eta biziak osatuta. Atsedendiraiko 36-5 aurretik ziren. Bigarren zatian ere antzerakoa izan zen partida. Bizkaitarrak defentsan eta

erasoan saiatu ziren, baina bietan nagusitu ziren etxeko taldekoak; hain zuzen ere, entsegu bana lortu zuten partidaren zati bakoitzean. Beltzek, berriz, lau.


Liga azken bi partidetan erabakigarria izango da Zarautz Beltzak. Lehen bi postuetan dauden Bathco eta Getxo taldeen aurka ariko da, 3 puntuko aldea dute elkarren artean.

Bestalde, 16 eta 18 urtez azpiko taldeek garaipen bana lortu zuten Gasteizen Gastediren kontra. Gazteenak, gainera, hiru jokalar gutxiagorekin aritu ziren.

ERRIGORA

MARTXOAREN 7TIK 22RA

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA ZEIN KON-TSERBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN WWW.ERRIGORA.EUS WEB GUNEAN



ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak polita! Ondo pasa zure 10 urtebetetzean!! Enaut aiton-amona eta familien partetik bihotz bihotzez.



Eneritz
Zorionak bihotza!!! Disfrutatu zure eguna eta jarraitu orain arte bezain zoriontsu bizitzen. Asko maite zaitugu.



Iñaki Imanol
Jada 2 urte. Zorionak, maitia. Asko maite zaitugu. Muxuak, zure gurasoak eta familiaren partetik.

JAIOTAKOAK

Alejandro Dominguez Domeque. Otsailaren 27an.
Carla Fuentes Flores. Otsailaren 25ean.

HILDAKOAK

Manuel Duarte Fernandez. Martxoaren 2an.
Gregoria Aguilera Lopez. Otsailaren 28an.
Sebastian Tudero Hernandez. Otsailaren 28an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 8 ACHA-ORBEA
Larunbata, 9 LASA
Igandea, 10 LASA
Astelehena, 11 URBISTONDO
Astearte, 12 GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 13 ORUE
Osteguna, 14 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Posta bidezko botoa

Apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorretan postaz emateko asmoa duten herritarrek, apirilaren 18ra arte dute eskaera egiteko.

Alderdi politikoen haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.

Misio taldeko diru bilketa

Lasarte-Oriako misiolari taldeak hainbat proiekturako dirua biltzen du. Larunbatean, martxoaren 8an, afaria egingo dute, Arantzazuko Amako elizako ekitaldi aretoan. 20:30ean izango da, eta hamar euro balioko ditu. Bildutakoa, Torga, Afrikara, bidaliko dute, bertako bizi baldintzak hobetzeko helburuarekin. Lomen, herrialdeko hiriburuan, unibertsitate ikasketak ahalbidetzeko erabiliko dute dirua.

Irteera Bermeora

Biyak Bat elkarteak kideek Bermeora irteera antolatu dute martxoaren 21ean. Bermeo ezagutzeko bisita gidatua egingo dute, besteak beste, alde zaharra, edo Erdi Aroko bidea. Casino jatetxean bazkalduko dute. Bazkideentzako prezioa 35 euro da. Bazkide ez direnek 45 euro ordaindu behar dituzte.


Izena ematea Biyak Bat elkarteak bulegoan egingo da eta martxoaren 11n irekiko dute.

Bidaia Britainia eta Normandiara


Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 8




Larunbata, 9




Igandea, 10




Astelehena, 11



Astearte, 12



Asteazkena, 13



SUDOKUA

8	7	2	3	1	9		5	6
	4						7	
		6				2		
		4	9	7		8		
				8	5		4	
	8				6	9	2	
4				9	1		8	
9		5	8					4
1	6	8					9	

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Usurbil erdigunean. Igogailua du. Bikote batentzat aproposa. Kanpoaldera, handia, aitzairuekin. 650 636 588.

Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oriako hipodromoko

etxebizitzetan. Telefona: 648 614 769.

LANA

ESKARIA

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako eskaintzen dut neure burua. 632687583

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako

eskaintzen dut neure burua. 631895039.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA M8 greba

Lasarte-Oriako M8 Asanbladak antolatutako egitaraua:

11:30ean, Karabana (kotxez, bizikletaz...)

12:30ean, Kalejira Okendo plazatik hasita. Bidean bost geldialdi egingo dituzte grebaren ardatz bakoitzari lotuta

13:30ean, Eserialdia Kale Nagusian

14:30ean, Bazkari autogestionatua (bakoitzak

berea ekarrita), Okendo plaza. Bazkalostean, performancea, mosaikoa eta irakurketa.

22:00etan, Kazerolada balkoietatik.

Lasarte-Oria, egun osoa

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumearen eguna dela eta, elkarretaratzea egingo dute, Lasarte-Oriak Udalak deituta.

Okendo plaza, 12:00etan

DONOSTIA M8 greba

Heteropatriarkatu kapitalistari planto! manifestazioa.

Antiguako tunela, 19:00etan

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ruta por el empoderamiento erakusketa martxoaren 15era arte ikusgai izango da.

Emakumeen Zentro Zibikoa, 17:00etatik 19:30era.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA IV. Zunba Maratoia

Emakumearen eguna dela eta, IV. Zunba Maratoia egingo da. Okendo plaza, 10:30etik 13:00etara.

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasle beteranoen bigarren erakusketa ikusteko azken eguna da.

A. Mercero aretoa, 17:30etik 20:00etara.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA 7ak bat

ATX Teatroak *7ak bat* antzezlana eskainiko du. Gure kulturako zappi bekatu kapitalak eta orokorrean bekatuaren ideia hartu eta, Victor Frankensteinek egin zuen moduan, gizaki berri bati bizia eman diote, groteskoa, basatia. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

URNIETA Ikuskizuna

Aukeran dantza konpainiak *Biz Hitza*, *Euskara batuaren historia dantzatua* ikuskizuna eskainiko du. Sarrera, 5 euro. Sarobe gunea, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Erakusketa

12 eta 18 urte arteko gazteek *Emakume palestinar errefuxiatuak*. *Estereotipoak desagitzen* erakusketa ikusiko dute Unrwa elkarte kideek lagunduta.

Gazteleku, 17:30etatik 19:30era.

IGANDEA 10

USURBIL Mahai-ingurua eta zinema

El Rey filmaren proiektzioa dela eta, mahai-inguru berezia egingo dute Willy Toledo zuzendariarekin. 19:00etan, zuzendaria berak filma aurkeztuko du. Filma ikusteko sarrera, 5 euro. Aurrez salgai egongo dira, Aitzagan eta Tximistran.

Sutegi, 18:00etatik aurrera.

ASTIGARRAGA Antzerkia

Peter punk haurrentzako antzerkia eskainiko dute. Ipuin klasikoan oinarritutako komedia musikal honetan Wendi da protagonista. Sarrera, haurrek 2,5 euro; helduek, 5 euro. Kultur etxea, 17:00etan.

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Maritxu Paulus Basurko abokatuak eta Anais Funosas Bake bidean elkarte kideak Frantzia dauden euskal presoen nondik norakoak aztertuko dituzte. Sarek antolatua. Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Literatura txokoa

Lasarte-Oriako Literatura txokoko

kideek Harkaitz Canoren *Fakirren ahotsa* liburua aztertuko dute. Uxue Alberdik zuzenduko du saioa.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Opera

1985. urtean Schala de Milanen grabatutako *Andrea Chenier* opera eskainiko dute. Paper nagusia Jose Carreras tenoreak antzezten du. Jatorrizko hizkuntza eskainiko dute gaztelezazko azpidatizkiekin. Sarrera aurrez, 7 euro; egunean bertan, 9 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Aterpea Merkatari elkarteak antolatuta, Olarra upategiko ardo dastatzea izango da. Izena ematea 7 euro. Plaza mugatuak dira. Buenetxea kafetegia, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA Txanbela Otxotea

Txanbela otxoteak emanaldia eskainiko du Josean Vegaren zuzendaritzapean. Euskal doinuak nagusi dira haien egitarauan. VII. Aste Musikaleko ekintza.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

La gran aventura de los Lunnies y el libro mágico
Igandea: 17:00.

Bienvinida a Montparnasse (JBGA)
Igandea: 19:30.

URNIETA

SAROB

Dantza

Igandea: 19:00.

ANDOAIN

BASTERO

La Lego película 2

Larunbata: 17:00.

Igandea: 17:00.

Cuestión de género

Larunbata: 19:30

Astelehena: 22:00.

USURBIL

URBIL

Capitana Marvel

Ostirala: 16:15, 18:00, 19:00, 19:45, 20:45, 22:00, 23:30, 00:30 (3D), 00:45.
Larunbata: 16:15, 18:00, 19:00, 19:45, 20:45, 22:00, 23:30, 00:30 (3D), 00:45.
Igandea: 16:15, 18:00, 19:00, 19:45, 20:45, 20:45, 22:00.

Mula

Ostirala: 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.
Larunbata: 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.
Igandea: 17:15, 19:45, 22:15.

Corgi, las mascotas de la reina

Ostirala: 15:55, 17:50.

Larunbata: 15:55, 17:50.
Igandea: 15:55, 17:50.

Cómo entrenar a tu dragón 3

Ostirala: 15:45, 17:00, 18:00, 19:20, 20:15.
Larunbata: 15:45, 17:00, 18:00, 19:20, 20:15.
Igandea: 15:45, 17:00, 18:00, 19:20, 20:15.

Alita: Ángel de combate

Ostirala: 16:00, 18:35, 21:15.
Larunbata: 16:00, 18:35, 21:15.
Igandea: 16:00, 18:35, 21:15.

Perdiendo El Este

Ostirala: 15:45, 22:25.

Larunbata: 15:45, 22:25.

Igandea: 15:45, 22:25.

15:45, 22:25.

Bajo el mismo techo

Ostirala: 22:30, 00:55.
Larunbata: 22:30, 00:55.
Igandea: 22:30.

Bohemian Rhapsody

Ostirala: 21:40.
Larunbata: 21:40.
Igandea: 21:40.

Green Book

Ostirala: 16:30, 19:15, 22:05.
Larunbata: 16:30, 19:15, 22:05.
Igandea: 16:30, 19:15, 22:05.

Una cuestión de género

Ostirala: 00:25.

Larunbata: 00:25.

4 Latas

Ostirala: 00:50.

Larunbata: 00:50.

Feedback

Ostirala: 00:00.

Larunbata: 00:00.



LABURPENA

Bienvinida a Montparnasse (JBGA)

Zuzendaria: Leonor Serraille. **Gidoilariak:** Clemence Carre, Bastien Daret, Leonor Serraille. **Herr.:** Frantzia (2017). **Antzezleak:** Laetitia Dosch, Souleymane Seye Ndiaye, Gregoire Monsaingeon, Jean-Christophe Folly, Nathalie Richard, Arnaud de Cazes, Ahmed Zirek, Philippe Lasry, Marie Remond, Jean-Rene Lemoineira. **Iraupena:** 97 minutu.

Bizitza berriari, aurpegi ona erakutsi

Martxoaren 8a dela eta, *Bienvinida a Montparnasse (Jeune Femme)* filma ikusi ahal da Manuel Lekuona kultur etxean. Jatorrizko hizkuntza, frantsesez, eskainiko dute, gaztelaniazko azpidatizkiekin.

Leonor Serraille zuzendariaren lehen lana da, eta John Cassavetes *Una mujer bajo la influencia* filma ekarri dezake gogora.


Paula 31 urteko emakumea da. Anbiziorik ez du, lotsagabekoa eta buruarina da. 10 urteko harremanaren ostean, bere mutil lagunak utziko du eta bere bizia aldatzeko momentua dela konturatzen da. Muchaca, mutil

ohiaren katua lagun duela Parisera bueltatuko da. Urte asko dira bere jaioterria utzi zuela. Lagunik eta lanik gabe dago, bakarrik sentitzen da... baina argi du hutsetik hasi nahi duela. Segurtasunez egoera berriari aurre egingo dio.

Zinema jaialdian hainbat sari lortutako filma da *Bienvinida a Montparnasse*. Hala nola, 2017. urteko Cannesko zinema jaialdian Urrezko kamera, *opera prima* onenaren saria eskuratu zuen, eta Valladolideko Semincin, Laetitia Doschek Agnieszka Mandat-Grabkaekin aktore onenaren saria partekatu zuen.

txintxarri
www.txintxarri.eus/gida

**GIDA
KOMERTZIALA**



Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

Parte hartu gidan!

**42€
urtean**



- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletetan...

GIDAN PARTE HARTZEKO: publizitatea@ttakun.eus 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66 Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako leiarrekin

229€

(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARDO DASTATZEA

Martxoa

Ordua

19:00etatik 21:00etara

Izen ematea

7€

PLAZA MUGATUAK!

13 Martxoa

BUENETXEA taberna-kafetegia
Upeltegia
OLARRA

20 Martxoa

ISLA PLAZA ardoteka
Upeltegia
IGNACIO MARÍN

21 Martxoa

TXARTEL kafetegia
Upeltegia
FÉLIX LORENZO CACHAZO

26 Martxoa

EGUZKI Taberna
Upeltegia
RAMÓN BILBAO-GOÑI

28 Martxoa

PRIMERAN taberna
Upeltegia
ONDARRE



Lasarte-Oria 2019